

2021. urteko diru-laguntzen deialdia

**Eremua: GENERO INDARKERIA ERROTIK ATERATZEA
ETA BERDINTASUNA**

Diru-laguntzen lerroa: ELKARTEGINTZA AHALDUNTZEA

1. artikulua. Esparrua eta xedea

Bilboko Udalaren Berdintasun Sailak, berdintasunaren eta genero-indarkeria errotik kentzearen eremuaren barruan, "Elkartegintza Ahalduntzea" izeneko diru-laguntzen lerroaren deialdia egin du 2021erako. Horren helburua da Bilboko udalerrian emakumeen eta feministen elkartegintza indartzea eta ahalduntzea.

2. artikulua.- Aplikatzekoa den araudia

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta azkenik, lege hori garatzen duen araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa, eta gainerako araudi osagarriak;
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1 Diru-laguntza eska lezakete ondorengo baldintzak betetzen dituzten emakumeen elkarteak:

- Eskabidea egin aurreko urtean gutxienez 10 lagun kide emakume izan direla egiaztatzea. Betekizun hau ez dute egiaztatu beharko Berdintasunaren Aldeko Bilboko Emakumeen Kontseiluan sartuta dauden emakumeen elkarteak eta elkarte feministek.
- Eskabidea egin aurreko bi urteetan, gutxienez, emakumeen eskubideen ikuspegia eta defentsa oinarri hartuta berdintasuna sustatzeko jarduerak burutu direla egiaztatzea. Betekizun hau ez dute egiaztatu beharko azken bi urte hauetan Berdintasun, Lankidetzak, Bizikidetzak eta Jailetako Sailak sustatutako diru-laguntza arlo honetan onuradun izan diren elkarteak.

3.2 Erakunde eskatzaileak, eskariak aurkezteko epea amaitzen denean, Bilboko Herritarren Partaidetzako Erakundearen Udal Erregistroan erregistratuta egon behar dute eta erregistroko datuak eguneratuta eduki behar dituzte (Erregistroa Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien Sailean dago: Venezuela plaza 2, 4. solairua) (2021eko otsailaren 17a).

3.3 Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte entitate eskatzaileek eskaera aurkezten den unean, dirulaguntza ematean, betebeharra onartzean eta ordaintzean ere bai.

4. artikulua. Aurrekontu-kredituak

4.1 Deitutako diru-laguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu kodearen PEP: 2021/00128 eta ekitaldirako 2021 onartutako 2021 33000 4 00128 00 2021 gastu-proiektuaren kontura finantzatzeko dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa 15.000 euro da.

4.1 Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

5. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura

5.1 Diruz lagundu daitekeen kontzeptuari aplikatzekoa izango den erregimena diru-kopuru finkoaren arabera hainbanaketa izango da.

- Diru-laguntzak emateko, aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa betekizunak betetzen dituzten eskarigileen artean banatzeko da, gutxienez 50 puntura iritsi badira, 9. artikuluan adierazitako irizpideei jarraituz. Hala ere, esleitutako kopurua txikitzeko modukoa izango da baldin-eta dagoen aurrekontu zuzkidura nahikoa ez bada diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten eskarigileen kopurua dela eta.

5.2 Emango den diru-laguntzaren kopurua 750 eurokoa da.

5.3 Diru-laguntza arlo honetan onetsitako diru-laguntzen guztizko zenbatekoa honetarako prestatutako zenbatekoa baino txikiagoa bada, soberakinak berdintasunaren eta genero-indarkeria errotik kentzearen beste bi arloetara bideratutakoa handituko du.

6. artikulua. Diruz laguntzeko kontzeptuak

6.1 Emakume-elkarteen eta elkarte feministen ohiko funtzionamendua da diruz lagunduko den kontzeptua.

6.2 Diruz laguntzeko kontzeptua emakumeen elkarten eta elkarte feministen ohiko funtzionamendua da.

- Elkartearen funtzionamendurako gastuak: ura, argia, gasa, telefonoa, alokairua,...
- Elkartearen aktibitateko oinarritzko materialak: bulegoko materiala, inprimategia,...
- Mantenurako gastuak: konponketak, komunikazio edo euskarri informatikoen mantenua (web orriak, blogak eta beste batzuk)
- Elkartearen oinarritzko jarduerengatik eratorritako gastuak, batzarren asistentziarako

garraioa, gizarte-topaketa arloko jarduerak, asanbladak,...

7. artikulua.- Eskabideak

7.1 Aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2021eko otsailaren 17an amaituko da.

7.2 Informazioa eta dokumentazioa.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orrian (www.bilbao.eus).
- Bilboko Udalaren gardentasun-atarian (www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio).
- Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean (www.infosubvenciones.es).
- Bilboko Udalaren Herritarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

7.3 Bideratzea

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren web-orria** medio bideratuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eman behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.
- Eskaria **udal erregistroan** aurkeztuz gero, diru-laguntzaren arlo eta ildo bakoitzeko eskari-orri bat bete behar da, Bilboko Udalak zehaztutako ereduaren arabera.

Orri horretan erakunde eskatzaileak diru-laguntza ildo horretan zer programa aurkeztu nahi dituen zehaztuko du, arloari dagozkion diruz laguntzeko moduko kontzeptuen arabera.

Eskari-orria aurkeztu daiteke Hiritarrentzako Arreta Bulegoan, barrutietako udal bulegoetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan legez ezarritako gainerako lekuetan.

7.4 Erakundearen legezko ordezkaritza edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanez adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaeran adierazitako datuak egiazkoak direla.

7.5 Diru-laguntza eskariek ezin dute gainditu, inola ere, programa bati emateko zenbateko handiena. Gehienezko zenbateko hori diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzean zehazten da.

7.6 Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantziazioak, guztira, ezin duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

7.7 Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki iritzitako argibide guztiak eska diezazkiete erakunde eskatzaileei.

7.8 Programa bakoitza bakarrik aurkeztu beharko da diru-laguntzaren udal arlo batera.

7.9 Elkarte eskatzaile bakoitzak programa edo proiektu bakarra aurkeztu dezake diru-laguntzaren arlo honetarako.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

8.1 Eskaria **Udalaren web-orriaren** bitartez bideratuz gero, bi dokumentu hauek aurkeztu behar dira, PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.2 Eskaria **udal erregistroan** aurkezten bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Programa bakoitzaren laburpen-fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.3 Eskaera sinatzen duenak espresuki baimenduko dio Bilboko Udalari egiazta dezala betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean daukan. Dena dela, baimena espresuki ukatu ahal izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

8.4 Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

8.5 Eskaria ez bada behar bezala formalizatu edo aipaturiko datu edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan** eskatuko zaio eta azalduko zaio akatsak zuzendu ezean eskaria artxibatu egingo dela, besterik gabe.

9. artikulua. Balorazio-irizpideak

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

A) Programa baloratzeko irizpideak GUZTIRA 80 puntu

a) Programaren interesa.....Gehienez 45 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Koherentzia Berdintasun Sailaren ildo estrategikoekin, helburuekin eta irizpideekin; parte-hartzaileen kopurua; programaren iraupena; zein kolektiborentzat den; programaren finkapena (lehendik gauzatutako programa); lankidetzak beste elkarte batzuekin.

b) Programaren diseinuaren kalitateaGehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Justifikazioa (programa egiteko arrazoiak); partaidetzaren adierazleak sexuaren eta adinaren arabera bananduta memorian eta proiektuan; helburuen, ekintzen, emaitzen, parte-hartzaileen eta abarren memoria zehatza; diru-laguntzaren urtean garatuko den proiektuaren edo ekintzen deskripzio zehatza; sarreraren eta gastuen balantzea aurkeztea eskatutako formatuan.

c) Aurrekontua egokia izatea.....Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Finantza-ahalegina (ekarpen propiorik dagoen ala ez); lokalarekin lotutako gastuak dituen ala ez; aurrekontuaren arrazoiak.

d) Programan gai hauek zeharka nola lantzen diren: euskara, genero-berdintasuna, kultura-artekotasuna, gazteria, irisgarritasuna.Gehienez 15 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Programak neurri zehatzak hartzea pertsona guztien irisgarritasuna eta parte-hartzea bermatzeko; genero-ikuspegia sartzea programan; hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez sexista, biztanle elebidunentzako euskarazko jarduerak, programak talde gazteen parte-hartzea barne hartzea; jarduerak kultura-aniztasuna kontuan hartzea (proiektuak ekintza espezifikoak edo egokitzapenak izan ditzala atzeritarren parte-hartzea, hedapena, lankidetzak bultzatzeko), familia-aniztasuna (familia-eredu desberdinak), eta ezgaitasuna duten pertsonen edo/eta bereizkeria anizkoitza eragin dezaketen beste ezaugarri batzuen behar espezifikoak kontuan hartzea.

B) Erakunde eskatzailearen balorazioa GUZTIRA 17 puntu

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Egiaztatutako esperientzia-urteak; programa gauzatzeko ahalmena; parte hartzeko egitura ekitatiboa; Udalaren emakumeen kontseiluan parte hartzea; beste koordinakunde edo kontseilu batzuetan parte hartzea; elkarteko pertsonak berdintasunaren arloko trebakuntza-ikastaroetara joatea; elkarrearen kide-kopurua; egoitzaren irisgarritasuna.

C) Eskariaren izapide elektronikoaGUZTIRA 3 puntu

10. artikulua. Izapideak eta balorazioa

10.1 Prozeduraren izapideak egiteko eskumena Berdintasun Saileko Berdintasuna Sustatzeko Sekzioari atxikitako langileek izango dute.

10.2 Kide anitzeko organo gisa jardungo duen balorazio-batzordeko kideak hauek izango dira:

Presidente: Berdintasun Saileko Zinegotzia.

Idazkaria: Berdintasun Saileko Zuzendaria.

Kideak: Andrazkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasuneko Teknikari Aholkularia.

10.3 Deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskariak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzeko.

10.4 Instrukzio-organismoak, espediente eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

11. artikulua. Berriz antolatzea

Behin programa guztiak baloratuta, erakunderen bati emateko zenbatekoa ez badator bat hark eskatutakoarekin, arau hauek beteko dira, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorreko 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

A) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak.

B) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da.

b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokitzeko, edo, bestela, diru-laguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du diru-laguntzari uko egitea erabaki duela.

12. artikulua. Ebazpena

12.1 Prozedura ebaztea Gobernu Batzordeari dagokio.

12.2 Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 6 hilabete da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzen berri emango da.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntzaren eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

12.3 Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakete Bilboko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea

13.1 Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-osorik, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantziazio gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

13.2 Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

13.3 Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantziazioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, horrez gain, edukiaren gaineko erantzukizun-klausula bat jarri beharko dute, testu honekin:

Proiektu honek Bilboko Udalaren diru-laguntza jaso du, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango diete.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren %10 itzuli beharko da.

Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen dituzte kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan.

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

15. artikulua. Azpikontratazioa

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

16. artikulua. Programa aldatzea

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berariaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzordeak dagokion saileko ordezkariari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikoak aldatzea.
- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzordeak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

17. artikulua. Uko egitea

Behin diru-laguntza emanda, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaioke Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantziazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea

19.1 Justifikatzeko epea

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa egikaritu ondoren jaso badute.

19.2 Justifikatu beharreko zenbatekoa

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

19.3 Justifikatzeko sistema.

Diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu behar du. Justifikazio-kontuan honako hauek jaso behar dira:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Horrek guztiak bat etorri behar du diru-laguntza eskatutakoan aurkeztutako programarekin. Eta derrigor adierazi behar da:
 - Zenbat pertsona izan diren onuradun (sexuaren arabera eta kolektiboaren arabera).
 - Zenbat jardueratan sartu den euskara.
- b) Programaren egikaritzeari dagokion gastu eta diru-sarreraren balantzea, emandako ereduaren arabera egina.
- c) Programa betetzeko gastuen fakturen zerrenda, emandako ereduaren arabera egina. Bertan zehaztuko dira gastuaren kontzeptua, faktura egin duen erakundea, data eta zenbatekoa eurotan.
- d) Hala badagokio, aplikatu gabeko soberakinen itzulketaren eta soberakin horietatik eratorritako interesen ordainketa-gutuna.
- e) Dirulaguntza ematen duen organoak, laginketa geruzatu konbinatuko teknikaren bidez, egokitzen jotzen dituen egiaztagiri osagarriak eskatu ahal izango ditu, dirulaguntza behar bezala aplikatu izanaren arrazoizko ebidentzia lortzeko. Horretarako, honako hauek eskatuko dira:
 - Dirulaguntza deialdi bidez emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorren 14.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, justifikazio-agiri originalak, programa gauzatzeko aurreikusitako epearen barruan egindako gastuak egiaztatzen dituztenak. Ondorio horietarako, programa gauzatzearekin zuzenean lotutako kostuak barne hartuko dira, eta guztiak fakturen eta froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuen bidez justifikatu beharko dira.
 - Gastuak justifikatzeko agirietan, datu hauek sartuko dira, nahitaez:
 1. Entitate onuradunaren identifikazioa.
 2. Gastua zertan egin den. Zuzeneko zerikusia izan beharko du programa gauzatzearekin.
 3. Era berean, justifikatzen den programari buruzkoak bakar-bakarrik izango dira justifikazio-agiriak.

4. Salbuespen modura, enpresa-buruak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako ordainsariaren zenbatekoa erakusten duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailearen identifikazio-agiriaren kopiarekin batera (NAN, AIZ edo pasaporte). Ordainsaria 200 euro baino handiagoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

5. Langile-gastuak nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztuz egiaztatuko dira.

19.4. Justifikaziorik egiten ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada

Justifikazio-betebeharra ez betetzeak, nahikoa ez justifikatzeak edo 14. artikuluan aipatzen den publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.